

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

21/2020 Mozioa, maiatzaren 27koa, COVID-19ren aurkako borrokan instituzioen arteko lankidetzaren alde

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko maiatzaren 27an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

21/2020 Mozioa, maiatzaren 27koa, COVID-19ren aurkako borrokan instituzioen arteko lankidetzaren alde.

1. Arabako Batzar Nagusiek beren samina azaltzen dute COVID-19ren biktimengatik, eta elkartasuna adierazten diete senide eta lagunei; gainera, aitortu egiten dute osasunaren, segurtasunaren eta gizarte osoaren horniduraren alde lehen lerroan lanean ari diren gizon eta emakumeen lana.

2. Arabako Batzar Nagusiek Osasun Sistema Publikoaren balioa nabarmendu nahi dute, bai eta zerbitzu publikoak orokorrean, herritarrak pandemiaren eta bere ondorioen aurrean babesteko tresnarik eraginkorrena direlako. Horretaz gain, gure konpromiso sendoa azaldu nahi dugu zerbitzu horiek defendatu eta hobetzeko, euskal autogobernuaren zati funtsezkoa direlako.

3. Arabako Batzar Nagusiek instituzio guztiei eskatzen diete (Espainiako Gobernuak, Eusko Jaurlaritza, aldundiak eta udalak) zein bere eskumak baliatuz indartu dezatela koordinazioa eta lankidetzaren alde, hori baita COVID-19ren aurka borrokatzeko kobernamentu instituzionalak duen tresnarik eraginkorrena.

4. Arabako Batzar Nagusiek, betiere aintzat hartuta errespetu instituzionala eta Euskal Herriak bere autogobernu-nahi sendoaren erakusgarri gisa berretsi zuen Gernikako Estatutuak emandako gaitasun, eskumen eta ahalmenak, Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari eskatzen die lankidetzaren alde daitezela deseskalatze-prozesua garatzeko, hala, udalerririk, eskualdeak eta lurralde historikoen errealitate espezifikoak egokitze aldera, beren ezaugarri demografiko, epidemiologiko eta ekonomikoak arabera.

5. Arabako Batzar Nagusiek dei egiten die euskal instituzio eta alderdi politiko guztiei berreraikitze-fasean elkarriketa eta lankidetzaren alde gunean sortzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 27a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA